

Osasun mentaleko erizainen lana botiketarik haratago

The work of mental health nurses beyond pharmaceuticals

Maria Milagros Amundarain Lejarza, Ainara Uribe Alkorta ⁽¹⁾, Margarita Diaz Sanz ⁽²⁾, Ana Merino Rodriguez ⁽³⁾ eta Paloma Atela Urquijo ⁽⁴⁾

Osakidetza. Durango OMZ ⁽¹⁾

Osakidetza. Ajuriagerra OMZ ⁽²⁾

Ezkerraldeko erizaintzako gainbegiralea ⁽³⁾

Barrualdeko erizaintzako gainbegiralea ⁽⁴⁾

mariamilagros.amundarainlejarza@osakidetza.eus

1. Sarrera

Osasun-arloan atxikidura farmakologikoak eta ez-farmakologikoak duten garrantzia egindako eta egiten diren ikerketa kopuruan erakusten da.

Atxikidura eta betetze terapeutikoa ez dira gauza bera. 2001an, OME-Osasunaren Mundu Erakundeak honela definitu zuen atxikimendu terapeutikoa: "Pertsona baten jokabidea, medikazioa hartzeari, dieta baten jarraipenari edo bizi-ohituen aldaketari dagokionez, bat dator profesional sanitarioarekin adostutako gomendioekin".

Betetze terapeutikoa pertsonaren jokabide pasiboa eta osasun profesionalaren jokabide aktiboa barneratzen ditu. Tratamenduarekiko atxikidura aldiz, dinamikoa eta konplexua da, eta faktore askoren eragina du, hala nola: sozioekonomikoak, osasun-laguntzarekin lotutakoak, gaixotasunarekin lotutakoak, tratamenduarekin lotutakoak eta pazientearekin lotutako faktoreak.

2. Helburuak

Durangoko Osasun Mentaleko Zentroko erizainek tratamendu ez-farmakologikoaren atxikimenduan duten lana erakustea.

3. Metodoak

Durangoko OMZ-Osasun Mentaleko Zentroan lan egiten duten OM-Osasun Mentaleko erizainek buruko nahasmendu larria eta beste arazo mentalak dituzten pertsonak tratatzen dituzte. Tratamendu horren barnean botiken hartzeaz gain, autozainketak lantzen dira (elikadura, loa, higiena, jarduera fisikoa, eta abar).

OMEk jarduera fisikoaren abantaila hitz egiten du eta adinaren arabera gomendioak ematen ditu. Horren harira, OMZtan hainbat jarduera egiten dira ariketa fisikoa sustatzeko. Alde batetik, Athletic fundazioarekin eta eguneko ospitalearekin batera, gaixo talde batek ordu bete astean ariketa fisikoa egiten du; eta bestaldetik, beste batzuek, Durango eta Durangaldeko Mugiment ekimenarekin.

Maria Milagors Amundarain Lejarza, Ainara Uribe Alkorta, Margarita Diaz Sanz, Ana Merino Rodriguez eta Paloma Atela Urquijo

Erizainek OMZko profesionalak ariketa fisikoko ekintzetara deribatutako pertsonen jarraipena egiten dute ekintza azaldu, balorazioa eta deribazioa egin ondoren.

4. Emaitzak

OMko erizainek jarduera fisikoaren inguruko ekintzak koordinatu eta sustatu dituzte azken bi urteotan.

Athletic Fundazioarekin eta Durangoko eguneko ospitalearekin batera egindako asteroko ekintzan buruko nahasmendu larria duten 12 pertsonen parte hartu dute.

Mugiment ekimenera 34 pertsona deribatu dira, zazpik atzera egin dute arrazoi desberdinengatik.

Erizainek egindako koordinazio eta ebaluaketa batzarretan ekimen bietan jendeak adierazitako gogobetetasuna nabarmendu dute.

5. Ondorioak

Jarduera fisikoak ongizate fisiko eta mentalean eragin onuragarria du. Pertsona batzuek beren kabuz egiten dute ariketa baina beste batzuek suspertzea behar dute eta horretan OMko erizainak funtzio garrantzitsua dauka.

6. Bibliografia

- Adherencia a los tratamientos a largo plazo: Pruebas para la acción. (2004). Organización Mundial de la Salud.
- Organización Mundial de la Salud. (2019). Plan de acción mundial sobre actividad física 2018-2030: personas más activas para un mundo más sano. Organización Mundial de la Salud. <https://iris.who.int/handle/10665/327897>